

Aiarako herrien etimologiak

ALFREDO ORIBE FERNÁNDEZ*

SARRERA

Lan honetan Arabako eskualdea den Aiarako herri izenen etimologiak izango dira aztergai. Lurralde hau interesgarria da hizkuntzen eragina toponimoetan arakatzeko: hizkuntza ukipeneko eremua da Aiarako lurraldea, sortaldetik euskara (1) eta mendebaletik gaztelania. Denboran atzera joanez, agian leku honetan hizkuntza bi baino gehiago egongo ziren.

Hizkuntzak etorri eta joaten dira beren oroitzapena galtzeraino, baina toponimian aspaldiko garaien isla dugu, zaharra eta berria uztartzen dira, jasotzen den aldaketa gizakion ahoan baino motelagoa izaten baita. Hori da leku izenen ikerketak dakarren alderdi garrantzizkoa, ez da soilik herri bakoitzeko izenak zer esanahi duen, horren atzean hizkuntza bat zegoen, gizarte bat eta horiek ezagutzeko toponimia lanabes baliogarria dugu.

Aiarako eskualdea Euskal Herrian dago eta Gaztelaren mugan kokatuta, haien bi hizkuntzek eragina dute lan honetako etimologietan, baita egon zirenean ere.

Aiara, Arabako eskualdeetariko bat da, eta probintziaren ipar-mendebalean dago. Iparraldean Bizkaiko Enkartzazioak, sortaldean Orozkoko haran handia, hegoaldean Araba, Bizkaia (Urduña) eta Burgosko lurraldeak daude eta mendebalean Burgosko probintzia.

Aiarako eskualdea bost udalerritan banatuta dago: Aiara, Amurrio, Artziniega, Laudio eta Okondo. Udalerrri bakoitzean zenbait herrigune daude, gehienak oso txikiak, herrixkak dira. Herriak eta herrigunak kontuan hartu dira lana egiteko. Hauek toponimia nagusikoak dira; baina ez dira sartu ibai eta mendi izenak, eta toponimia txikia alboratu da: baserriak, bideak, errekek... Lanaren luzera mugatua da, ez

* “Sancho el Sabio
Fundazioa”
III. Unibertsitate
mailako ikerketa
lehiaketaren irabazlea
(2000)

(1) Aiarako euskararen historiaz ikus Bar(renengoa)I 24-38 orr. Eta Arabako euskararen gaineko informazioa H. Knörr-en *Lo que hay que saber de la lengua vasca en Alava. Arabako euskarari buruz jakin behar dena*, Gasteiz, 1998.

legoke lekuri horiek guztiak sartzeko; bestalde, aztergai hartu direnek lagin bat osatzen dute, lurraldeko isla bat, ez zehatzena, baina irudi egiantzeko bat emateko aski.

Lanaren egituraz, bi hitz. Sarrera bukatu orduko izenen azterketa dago, 44 sarrera orotara. Sarrera bakoitzaren azpian zenbait lekukotasun; batez ere zaharrenak lehenetsi dira, espazioagatik aukeran zeuden guztiak ez dira sartu. Ondoren azalpen etimologikoak, lekukotasunekin bezala, ez dira guztiak sartu, normalean hobesgarria zirudiena sartu da. Zalantzak ugariak izan dira, eta gerta liteke azalpen baztertutakoen artean onik egotea. Herri izenen sarreraren ondotik ondorioen txanda da, lantxo honen bidez zernolako iritziak geratzen dira azaltzeko.

Aginaga (gazt.Aguñiga)

Lekukotasunak: 1124 *Aguinaga* (LG 612) (2), 1257 (*Aguinaga*) (3) (RU 119), 1516 *Aguñiga* (OrdII 429), 1527 (*Aguñiga*) (LO 501), 1533 *Aguinaga* (AA2 506), 1535 *Aguñega* (AA3 111), 1683 *Aguñaga* (LG 612), 1798 *Aguinaga* (LD 109), 1892 *Aguñiga* (MD 2).

Etimologia argia duen toponimoa da hau, euskarazko zuhaitz baten izenaz (*hagin*) osatua, (*Taxus baccata*), gaztelaniaz ‘tejo’. Atzean daraman atzizkia oso ezaguna da euskal toponimian, nahiz eta etimologia ziurra ez izan. Lehen uste zen atzizki kolektibo zela (-ak artikulatu pluralarekin harremana zuela), baina kontraadibideak badira: *Arespakotxaga* < *haritz bakoitz* -*aga* “haritz bakarreko lekua”? Beraz, bestelako adierazpenik gehitu gabe, lekua adierazten duen atzizkia dugu hau (4).

Gainera, euskal forma zaharrak luze iraun bazuen ere (Landazurirenean hori da duen itxura), bilakaera XVI. mendean jasoa zuen (*Agiñiga*), sudurkariaren palatalizazioa eta azkenaurreko bokala itxiz.

Herrixka honen izenaren aldagarritasuna antzemateko, paralelo ona da Urduñako dokumentazio zaharrean dagoen eskribau baten deitura, 1484. urteko agiri batean bere izena hiru era desberdinetan idatzi bait-

(2) Laburdurak erabili dira: AA1, AA2 eta AA3 (*Arabako Biltzar Nagusien Aktak I, II eta III*), BarII (Barrenengoaren 2. liburukia), BB (Becerro de Bengoaren *El libro de Álava*), BB2 (Becerro de Bengoaren *Descripciones de Álava*), BF (Lope García de Salazarren *Las bienandanzas y fortunas*), EE (Eduardo Escarzaga), FB (Irigoyen eta Olasolo), IH (Ingrid Horch), Itur (Iturrate), MD (Santiago Mendía), LD (Landazuri), LG (López de Guereñu), LO (Luengas Otaola), OrdI eta OrdII (*Ordenanzas de Orduña I eta II*), RU (Salazar Arechaldereen liburua, Ruzabalgo batzarraz) eta TP (*Toponimia medieval en el País Vasco I*).

(3) Parentesi arteko herri izenak pertsona izenetan, deituretan, aurkitu dira.

(4) Atzizki honetaz informazio gehiago eskuratzeko Salaberri 29-32 orr.

zuen: *Lope Ibañez de Aguinaga* (RU 144), *Lope Ivañez de Aguiñaga* eta *Lope Ivañez de Aguiñiga* (RU 145).

Aiara (gazt.Ayala)

932, 939 *Ayala* (TP 561), 1025 *Aialha*, 1257 *Ayala* (LG 621), 1373 *Ayala* (LO 147), 1454 *Ayala* (OrdI 32), 1471-76 *Ayala* (BF 266), 1495 *Aiala* (Itur 270), 1527 *Ayala* (LO 501), 1569 *Ayala* (LO 170), 1798 *Ayala* (LD 89), 1892 *Ayala* (MD 2), 1931 *Ayala* (EE 5).

Eskualdeari izena eman dion udalerrri honek herrixka nahiko hartzen ditu. Lurraldean bazeuden aspaldi euskaldunak eta erromantzedunak (Irigoien 1997:376). Lekukotasunen ataletan bildu diren herriaren izen guztiak gaztelaniazkoak bide dira, eukarazko aldaeraren ordezkari bat bada, XVI. mendekoa, Esteban Garibai arrasatear historialariarena: “se llamó *Ayara* en la lengua Bascongada de la misma tierra, y oy en día se llama en ella de la misma manera, y por corrupción dicen en la castellana *Ayala*” (BarII 404). Lekukotasunen urritasuna, dena den, ez da arraroa, testuetako hizkuntza erdara zenez, erdarazko aldaerak idazten baitziren. Dena den, lurralde honetako euskal toponimoetan badaude erdal aldaera duten bi leku izen: Amurrioko *Ayalabaso* (BarII 91) eta Salbantoneko *Ayalaran* (BarII 196).

Alde batera uzten dira etimologia aurrezientifikoak, Lope García de Salazarrena kasu: “E el Rey dixo pues *ayala*, e por esto ovo nombre *Ayala* (5)” (Irigoien 1997: 376). Izen iluna da, J. C. Barojak lotu zuen *ai* hitzarekin, ‘aldapa, aldats’ esanahiduna (1980: 250). Bukaerako alternantzia antzekoa dute Arabako beste bi toponimo ezagunek: Erdi Aroko *Birgara*, egungo *Virgala* (cf. Gipuzkoako *Bergara*) eta antzinako *Gebala*, egun *Gebara* (Baroja 1980: 243). Azken hauek indoeuropar etimologia dute baina aztergai duguna zalantzazkoa den sail batean sar liteke: *-(h)ara* atzizkia omen dutenenean. Hauetan toponimoaren osagai nagusia den izena euskarazkoa bada: 1025. urteko *Larrahara*, egun *Larrara* (Baroja 1980: 178), 1025eko *Haiztara* (aip. lib. 174) eta 1076ko *Liçarrara*, egungo *Lizarra* (Michelena 1987: 108). Agian talde ustezko honetan *Aiara* (**ai-+(h)ara*) ere sar genezake.

Aurrekoa segurua ez bada, zalantza gehiagorekin beste lotura bat aurkeztu daiteke, Eslabako *Aiareta* (6) leku izenarekin. Azaleko analisiaren arabera, *Aiara* + *-eta* egitura asmatzen da; edo, bestalde, *Aioro-Aiora* pertsona izenez eratua da. Hau, eta lehenago idatzia,

(5) Eskualde honetako *Salbada* mendizerrarentzat ere antzeko azalpena eman izan da, *sal* -
var aditzaren partizipioaren bidez.

(6) Salaberri 70, 664.

kontu handienarekin hartu behar dira, izen honentzako etimologia betegarririk oraingoz ez dago.

Aloria

1257 *Aloria* (LG 614), 1471 *Aloria* (OrdI 97,99), 1517 *Aloria* (OrdII 454,455), 1798 *Aloria* (LD 110), 1877 *Aloria* (BB 318), 1891 *Aloria* (BB2 156).

Egun Amurrioko udalerrikoa. Lehen Arrastariako udalerrikoa zen, eta barruan zeuden *Aloria*, *Artomaña*, *Delika* eta *Tertanga*. *Arrastaria* izenaren lehenengo agerpena 1095.ekoa da, *Harriestaria* itxurapean, osatzen duten bi elementuak dira *harri* eta *estaria* (*estali* partizipioaren antzinako forma bat) (Michelena 1987: 152).

Aloria-k ez du etimologia ziurrik. Hurbiltze moduan aipa daiteke *Izoria* herria, bukaera berdintsua dute eta ez litzateke arraroa euren artean kideasunik egotea. Bestaldetik, antroponimo bat izan liteke, edo elkartu bat: *Allus* (7) (Irigoien 1997: 402), edo haren eratorri bat, eta *Aurius*, monoptongaturik. Bigarren segmentua, antroponimoa izan beharrean adjektiboa izan daiteke: *-*oria*, eta horrek baditu azalpen bat baino gehiago: euskarazko *horia* kolorea. Eta beste azalpen batean, elementu hori erdarazkoa litzateke, *Hontoria* (lat. *Fonte aurea*) bezala (euskaran *Urraiturri* dago), agian *Aloria*-k ere antzeko azalbi-dea du.

Amurrio

1095 *Amurrio* (TP 249), 1373 *Amurrio* (LO 150), 1454 *Amurrio* (OrdI 36,39,44), 1471-76 *Amurrio* (BF 265), 1510 *Amurrio* (LO 473), 1527 *Amurrio* (LO 505), 1688 *Amurrio* (LO 171), 1745 *Amurrio* (FB 194), 1798 *Amurrio* (LD 109), 1892 *Amurrio* (MD 2).

Aiarako bigarren udalerria da biztanleetan eta, Laudiok bezala, hazkunde oso handia jasan zuen aurreko mendean. Etimologia zaila du, Barrenengoarena (8) ez da onargarria, euskararen barruan nahitaezkoa bilatzeagatik. Dena den, Irigoienek aipu bat interesgarria da; tamalez ez zuen zeharo osatu: "seguramente está relacionado con *amurru* "rabia" usado en otro tiempo ampliamente como sobrenombre (cf. *Lop Amurru* en 1283 en Irache)" (Irigoien 1997: 389).

(7) Nafarroan *Allo* herria dago.

(8) BarIII 92: "poblado de la colina", de AMA "colina, meseta" –URRI, URI "poblado" –O suf. locativo/ "paraje de aguas de la loma".

Egiantzekotasun handiagoa dago beste toponimo batekin lotzean, *Amurrihuri* (9) leku izenaren lehenengo elementua **Amurri-* baita, aztertzen dugun herri izenaren oso antzekoa. Ez dago argi delako elementu hori hitz arrunta ala antroponimoa den, bietatik lotzen baitira (*huri*-rekin).

Antroponimoa izango zen Mitxelenaren azalpena kontuan hartzen badugu, herri izen askotan *-iano* > *-io* laburtzapena gertatu zela eta (cf. *Otxandio* < *Otxandiano*) (Michelena 1973: 46). Hala balitz, oraingo izenaren aurrekaria **Amurriano* izango zen garai batean, eskualde honetan *Baranbio* litzateke beste adibide bat. Arazoa da **Amurriano* ez dela gaztelaniaz dokumentatzen, agian laburtzapena oso goiz gertatu zen (10), gaztelaniak forma zaharrari ez eusteko, baina *Derendano* badago eta ez **Derendio*.

Añes

864 *Annis* (TP 287), 866 *Annies*, 1095 *Annes*, 1194 *Anñes* (LG 615), 1533 *Añes* (AA2 506), 1798 *Añies* (LD 109), 1845 *Añes* (BarII 355), 1892 *Añes* (MD 2).

Aiarako udalerrikoa, Burgosko lurretatik oso hurbil, eta aspalditik eremu erdaldunekoa da. J. Caro Baroja eta beste ikertzaile batzuen iritziz pertsona izen baten genitiboa genuke, izenaren jatorria latina *Anius*, *Annicius*-en genitiboa: *Annici* > *Añes* (Caro Baroja 1945:103). Nafarroan *Aniz* (Belasko 70) herriaren izenean euskal bilakabidearen erakusgarria litzateke, sudurkari geminatua bakundu eta *-iz* atzizkia, euskaraz patronimo sortzailea (cf. *Gordeliz*). Kasu berdintsua Bizkaiko *Muskiz* herrian dago, gaztelaniaz *Musques* zelako (eta Nafarroan *Muskitz* daukagu, txistukari afrikatuarekin).

Arceniega v. Artziniega

Arespalditza (gazt. Respaldiza)

1095 *Arispaldizaca*, 1149 *Reispaldizar*, 1371 *Arespaldiza* (LG 649), 1471-76 *Respaldiça* (BF 36), 1490 *Respaldiza* (LO 165), 1533 *Rrespaldiça* (AA2 506), 1569 *Respaldiza* (LO 170), 1704 (*Respaldiza*, *Respaldizar*) (FB 2212), 1715 *Arespaldiza* (BarII 24),

(9) *Amurrihuri* izena ikusteko QUILIS, Mercedes: "La F- inicial latina en los orígenes de la lengua española II", *ASJU*, XXX-1, 1997, 102. orr.

(10) Adibidez, 1115. urterako *Ochandio* agertzen da (Euskera, 2. aldia, 28: 109), horrek erakusten digu XII. menderako aipatutako bilakaera burutua zegoela. Beharbada, agiriak gaztelaniaz idazten hasi zirenerako forma zaharrak galduta zeuden.

1748 *Respaldiza* (LO 780), 1798 *Respaldizar* (11) (LD 109), 1892 *Respaldiza* (MD 2).

Aiarako udalerriko burua, aldaera batzuk erakusten ditu mendeetan zehar, eta agian lehenengo lekukotasuna adierazgarriena da. Bi bide daude honen eta besteen arteko aldea azaltzeko: lehenengoan *-aka > -aga > -a* bilakaera genuke (Muguruza 6) eta bestean irakurketa kontua litzateke: *Arispaldiza[h]a* (Irigoien 1997: 389). Bigarren hau zuzena balitz, hitzaren paraleloak genituzke 1025. urteko *Reja de San Millán* ospetsuan: *Hascarzaha, Hamezaha...*(Michelena 1987:144). Horrek ziurrenik adieraziko luke euskal etimologiakoa dela, eta aipatutako bi lekukotasun zahar horiek bezala, oinarrian zuhaitz izen bat genuke (h)*aretx* ‘haritz’ esanahiarekin, baita ere ‘zuhaitz’ bezala erabilia (Muguruza 6). Azken zatia *-tza*(12) atzizkia litzateke, ugaritasunekoa. Izenaren eta atzizkiaren artekoa iluna da, agian izenari erreferentzia egiten dion adjektiboa edo izena da.

Artomaña

1257 *Artomana* (LG 619), 1467 *Artomanna* (OrdI 67,68,73), 1471 *Artomana* (OrdI 97), 1471 *Artomanna* (OrdI 99), 1484 *Artomaña* (OrdI 151), 1507 *Artómaña* (AA1 124), 1745 *Artomana* (FB 423), 1798 *Artomaña* (LD 110), 1877 *Artómaña* (BB 318).

Ez da bilatutako bibliografian azalpenik aurkitu. Udalerrri berean *Lekamaña* dago, biak bukaera berdina dutenak. Itxura hutsa izan daiteke bi izenen hasierako zatietan euskal hitzen homofonoak topatzea: *arto* eta *leka*. Sinesgarriago dirudi erdal etimologia izateak, *Lekamaña* sarreran informazio osagarria dago.

Artziniega (gazt.Arceniega)

1272 *Arseniega*, 1370 *Arziñiega* (LG 616), 1508 *Arziniega* (OrdI 339), 1522 *Arzeniega* (AA2 107), 1533 *Arzeniega* (AA2 506), 1537 *Arziniega* (AA3 239), 1708 *Arzeniega* (Itur 437), 1798 *Arciniega* (LD 89), 1892 *Arceniega* (MD 25), 1931 *Arceniega* (EE 5).

Hiribildu honen izenak baditu hainbat azalpen saio. Albertos Firmatek *Arc-* indoeuropar erroarekin harremanean jarri zuen, eta bestalde *-eco* (13) atzizkiak ere arduratu zen, Kantabriako toponimoetan

(11) Barrenengoaren arabera, forma horrekin maiz agertzen zen XVII eta XVIII mendeetan (BarII 162). Beharbada, hurbil dagoen *Olabezahar*-ekiko analogiaz sortua (erd. *Olábezar*).

(12) Bilduma honetan atzizki horrek badu beste agerraldi bat (*Zuhatza*), atzizkiak informazio osagarria: Salaberri 76-77 orr.

(13) Arabako hegoaldean atzizki bera duten toponimo batzuk: *Elciego, Samaniego, Berberiego*.

ere dagoela idatziz. Gainera, *Arziniaga* izeneko ibaia aipatzen du, Bizkaiko Enkartazioetan dagoena (Albertos Firmat 180).

Antroponimo zehatz bat proposatzen da hurrengo etimologian, *Arsenius* + *-iaka* (indoeuropearazko jabego atzizkia) > *Arseniaka* > *Arseniaga* (Muguruza 11). Eta azkenik, Schulzek emana: *Arcius* > **Arcinius*(14) + *-eca*, lehen pertsona izena delarik (I. Horch 160).

Hirurek jatorri indoeuroparra bilatzen dute, izenaren oinarria pertsona izena izan zitekeen, eta bukeran gramatikako elementu edutezko bat, modu honetan lurraren edo etxe baten jabegoa adierazten zuten. Eskema hori oso ezaguna da eta paraleloak ditu euskara barruan ere: *Perurena*, *Errandonea*, *Santxotena*...

Ezin dira aipatu gabe utzi toponimo oso antzekoak daudela inguru honetan: Araban *Arcena* eta Bizkaian *Arcentales*, *Artziniaga*-rekin harremanean jar daitezkeenak. Agian egungo formaren aurrekaria **Arcen-eca* moduko bat izan zen, ondoren erromantzearen bilakaera jasoko zuena.

Ayala v. Aiara

Baranbio

1471 (*Baranbio*) (OrdI 97), 1487 (*Barambio*) (LG 621), 1527 *Barambio* (LO 501), 1533 *Baranbio* (AA2 506), 1539 *Baranbio* (AA3 282), 1704 (*Barambio*) (FB 526), 1798 *Barambio* (LD 109), 1841 *Barambio* (LO 174), 1892 *Barambio* (MD 2).

Amurrioko udalerrikoa, etimologia bat baino bilatu diote. Adibidez, *baran* “belar mota bat” *-di* > *Barandio* > *Baranbio* (Añamendiko Entziklopedia, *Barambio* sarreran). Beharbada, oinarrian antroponimo bat dago eta horri loturik *-ano* atzizkia laburtuta (15) (cf. Zeberio < **Severiano*). Pertsona izen hori **Barandi-* delakoan gaude, ondoren kontsonante asimilazioa gertatu dela: **Barandi* > **Baranbi*, eta atzerago joanez, **Bara+* *handi* izen elkartua genuke (cf. **Otso+* *handi* (16) > **Otxandi-ano* > *Otxandiano* > *Otxandio*).

Pertsona izen hipotetiko horrek baditu beste hainbat agerraldi ere: *Barandiaran* (*haran* izen arruntarekin) eta *Barandika* (*-(i)ka* atzizkia-rekin, Euskal Herriko sartaldeko toponimian ezaguna). Bestalde, toponimo askotan aurkitzen den lehenengo elementua **Bara-* da: *Barazar*, *Baraiazarra*, *Baraibar*, *Baroja* (lehenago *Baraolha* formapean agerturik).

(14) Izen honetatik eta honen adibideak ikusteko ikus Irigoien 1997:358, 52. oharra.

(15) Litekeena da behin *Baranbiano* izatea; egiatan, *Baranbiano*-ren lekukotasuna badago 1633 urteko agiri batean, bi aldiz. Datua hartua dago Asociación Cultural del Valle de Zuia-ren 133. alean.

(16) Irigoienen arabera, *Otxandi* da *Otxando*-ren *dobletea* (Irigoien 1997: 406). Mitxelena-ren azalpena: (*Otxandi(ano)* izenez) “probablemente *-andi-* ‘grande’: *Otxoa Andia* o *Otxo Andia*” (1973: 144).

Beotegi

1483 (*Beotigi*) (OrdI 144), 1514 (*Beotigui*) (OrdII 386), 1516 (*Veotegui*) (AA1 415), 1533 *Beotegui* (AA2 506), 1798 *Biotegui* (LD 109), 1892 *Beótegui* (MD 2).

Aiarako udalerriko herrigunea den hau lehen *Perea* izenaz ezaguna zen. Honen jatorriaz esan daiteke (Irigoien 1997: 389) *Pere* (17) pertsona izena dela. Aldaera ezagunak dira *Pe(t)ri*, *Pero* edo *Peru* (gazt. *Pedro*), bukaeran *-a* artikulua edo *-aga* laburtuta dago.

Egungo izenean *behor* abere izena dago eta *tegi* euskal hitza; beraz, esanahia litzateke *behorren lekua* edo *ikuilua*. Nafarroan *Beortegi* deritzan herria badago, fonema dardarkaria galdu gabe.

Herrixka honen izenaren forma herrikoia *Bioti* da (BarII 235).

Campijo

1573 (*Campijo*) (Itur 418), 1642 *Campijo* (Itur 419), 1710 *Campijo* (Itur 421), 1720 *Campixo* (Itur 85), 1768 *Campijo* (Itur 423), 1798 *Campijo* (LD 110), 1877 *Campijo* (BB 317).

Artziniegako herrigunea, lat. *campus* hitzaren eratorri ugarietako bat da: *campellu* > *campijo* (I. Horch 200). Erdarazko *campo*-rekin harreman etimologikoa du, hitz latinaren ondorengo gatzelaniazkoa haxe baita.

Costera v. Opellora**Delika**

1257 *Odelicia* (LG 626), 1467 *Odeliquia* (OrdI 67), 1471 *Odelica* (OrdI 97,99), *Edelica* (OrdI 112), 1490 (*Odelica*) (OrdII 611), 1499 *Delyca* (OrdI 324), 1503 (*Hodélica*) (AA1 15), 1517 *Delica* (OrdII 454,455), 1544 (*Délica*) (AA3 538), 1798 *Délica* (LD 110), 1877 *Délica* (BB318), 1892 *Délica* (MD 66).

Delika lehen Arrastariako udalerriko burua zen, gerora udalerrri hori desegin eta Amurrion sartu zuten. Herriaren aldaera bat baino gehiago egon arren, antzinan *Odelika* zen nagusi. Haren analisisa egiterakotan, antroponimo gehi atzizki batez osatuta dagoela ematen du, atzizki hori ezaguna da Euskal Herriaren mendebaleko toponimian; *-aka*, *-eka* eta *-ika* atzizkiez osatutako leku izenen zerrenda luzea da oso. Atzizki honen jatorriaz, Mitxelenak Bähr-en iritzia biltzen du, euskararena ez dela (Michelena 1973:103-104). Ondoren, Irigoienek atzizki honetaz luze aritu ondoren adierazi zuen *-ika* atzizkia, antzinan

ezezik, erromatar aroaren ondotik ere erabili zela, Erdi Aroan bertan (Irigoien 1997: 399 eta hurrengoak).

Delikari buruz, *Delius* pertsona izena oinarrian dagoela idatzi da (Muguruza 11). Baina lehenengo lekukotasunetan bokalez hasten da; beraz, *Deli(us)* seguraski ez, baina oso izen antzekoa genuke. Gainera, toponimo honekin harreman estua duen beste bat dago oso kilometro gutxitara Urduñako eremuan, egungo *Zedelika* auzunea (González Salazar 103). Lekukotasun zaharretan : 1471 (*Çedelica*) (OrdI 97) eta 1491 *Çidilica* (OrdII 671).

Erbi

864 *Ervido* (LG 628), 1533 *Herbi* (AA2 506), 1798 *Herui* (LD 109), 1877 *Ervi* (BB 318), 1892 *Ervi* (MD 2).

Aiarako udalerrikoa den herrigune honi bi etimologia eman dizkio-te. Lehenengoan izen bereko animaliarekin lotu zuten; hala ere, sinsegaitza dirudi izena soilik agertzea, beste ezerekin gabe. Bigarreanean izen arrunt bat dena zerbaki batekin azaltzen da: *Herri + bi* > (*h*)*erbi* 'bi herri'. Azken etimologia honek ez du zailtasun handirik sortzen, eta *bi* zerbakia eskuinean egotea arrunta da mendebalean, egungo euskaran eta toponimian (cf. Basauriko *Bidebieta*).

Bukatzeko, berezitasun ortografiko bat. Antza denez, *Herbi* izan da herri honen izena idazteko forma nagusia, eta Elizako liburuetan *Erbi* XIX. mendean agertu zen lehenengo aldiz (BarII 345). Galdutako ohi-tura hori izan zen aspaldiko hasperenketak utzitako aztarren grafikoa?

Erreta-Lantenu (gazt. Retes de Llanteno)

1454 *Retes* (OrdI 36,44), 1660 *Retes de Llanteno* (Itur 213), 1841 *Retes de junto a Llanteno* (LO 174), 1877 *Retes de Llanteno* (BB 320), 1892 *Retes de Llanteno* (MD 2).

Aiarako udalerrikoa. Leku izen honetan eta hurrengoan gaztelaniaz egindako formazioa dugu, lehen elementua *rete(s)* hitza da; Nafarroa, Errioxa eta Arabako gaztelania dialektalean ezaguna, gaztelaniaren forma arrunta *red* da, eta bere esanahia da abereek mendian lo egiteko duten lekua (Echevarría Isusquiza 464). Antroponimoetan izan da erabilia aspalditik: 1504 *Sancho López de Rretes* (AA1 47).

Erreta-Tutera (gazt. Retes de Tudela)

1798 *Retes de Tudela* (LD 109), 1877 *Retes de junto a Tudela* (BB 317), 1931 *Retes de Tudela* (EE 5).

Erreta-Lantenu-rako balio duenak Artziniegako herrixka honetarako ere balio du. Gaztelaniaz erabilitako herri izena da; eta bigarren zatiari dagokionez, Burgosko Mena haraneko herri batzuk biltzen dira

izen honen pean, *Valle de Tudela* delakoan. Artziniegako herrigune hau Burgostik oso hurbil dago, hortik harturiko izena. Beste aldetik, *Tutela* teonimo latina zen eta askotan dager toponimian (cf. Nafarroako *Tudela*), eta euskarazko aldaera Nafarroakoan ikusten denez, haren euskal ordaina *Tutera* da.

Etxegoien

1483 (*Echagoyan*) (OrdI 144), 1508 (*Echegoyan*) (OrdI 344), 1533 *Hechegoyen* (AA2 506), 1535 *Echagoyen* (AA3 109), 1598 (*Echegoyan*) (LO 525), 1798 *Echegoyen* (LD 109), 1877 *Echegoyen* (BB 318), 1892 *Echegoyan* (MD 2).

Aiarako udalerrian dago eta egun *Etxegoien* forma nagusitu bada ere, historian zehar agerpen desberdinak izan ditu. Etimologia euskarazkoa da, hitz elkartua: *etxe*+ *goien*, azken hau superlatiboa da berez, eta esanahia: *goiko etxea*, *goienekoa*. Garaiera ezezik, nagusitasuna ere egon liteke bere esanahian. José Madinabeitiaren liburuan badaude Manuel de Lekuonaren etimologiak Amurrioko leku izenen gainean eta *Echegoyan* sarreran hau da bere azalpena: "*casa dominante*", "*eminente*" (*localmente*) (José Madinabeitia 17).

Gordeliz

1573 *Gordelliz* (Itur 416), 1642 *Gordelliz* (Itur 419), 1710 *Gordelliz* (Itur 421), 1768 *Gordelliz* (Itur 422), 1798 *Gordelliz* (LG 632), 1822 *Gordelliz* (Itur 424), 1877 *Gordelliz* (BB 317), 1931 *Gordéliz* (EE 5).

Artziniegako udalerrian dagoen toponimo honek egitura garbia du. Mitxelenak, adibidez, *Gordelius* antroponimotik eratortzen du (1973: 109), eta gaineratzen du *-iz* atzizkia garai ez hain zaharretan ere erabili izan zela. Lehenago, Caro Barojak emana zuen jatorri hori, *Gordeliz*-en aurrekaria *Gordelici* zela, *Gordelius* pertsona izenaren genitiboa, hain zuzen (J. C. Baroja 1945:103).

Albokariaren nolakotasunaz ohar bat: eskualdeko biztanleek *Gordelliz* erabiltzen dute (González Salazar 37). Egun, herrigunearen izen ofiziala *Gordeliz* da.

Izoria

1454 *Yçoria* (OrdI 36), 1510 *Izoria* (LO 473), 1533 *Yzoria* (AA2 506), 1688 *Izoria* (LO 171), 1710 *Izoria* (Itur 384), 1736 *Izoria* (LO 172), 1750 *Yzoria* (LO 508), 1798 *Izoria* (LD 109), 1841 *Izoria* (LO 175), 1892 *Izoria* (MD 2).

Aiarako herri izena ezezik, ibai bat izendatzeko ere erabiltzen da. Eskualde berean *Izalde* ibaia aurkitzen da, eta pentsatu beharra dago etimologikideak izan daitezkeela, eta orduan *Aloria*-rekiko antzeko-

tasuna agian halabehar hutsa da, honen jatorria antroponimo batean bilatu beharko litzatekeelako. Izen honen etimologia hauxe izan daiteke: **i(h)i+-tza+(h)ori+-a*, hots, landare baten multzoa (*i(h)i+tza*) eta adjektiboa, kolore bat (*hori+-a* (artikulua)). Aiara aldean oso ugaria da *ihi* hitza osagai nagusitzat duten toponimoak: Olabezaharren *Iza* erreka (BarII 143), Izorian *Iza(a)* soroa (BarII 168), eta Menoion *Iza* da amildegi bat, aldapa bat eta soro bat (BarII 215), eta gehiago ere badira. Beraz, ohikoak dira hitz honen eratorriak Aiarako toponimia txikian. Bestela, lehen elementua *haitz* izan liteke, mendebaleko euskararen izandako *-i(t)z-> -(t)x-* bilakaera jasan gabe.

Kexaa (gazt. Quejana)

1095 *Kexana*, 1149 *Quejona* (LG 648), 1436 *Quexana* (OrdI 29,31), 1471-76 *Quexana* (BF 37), 1508 *Quixana* (OrdI 338), 1533 *Quexana* (AA2 506), 1704 *Quejana* (FB 2190), 1798 *Quejana* (LD 109), 1891 *Quejana* (BB2 147), 1931 *Quejana* (EE 55).

Aiarako herria, monasterio ospetsua ere badago han. Albertos-ek pertsona izena ikusten du: “*Quejana* corresponde a *Caeliana*” (Albertos Firmat 211). Caro Baroja ere iritzi berekoa da: *Caelius* > *Caeliana* > *Quejana* (Caro Baroja 1945: 93). Latin jatorriko toponimoa da hau, gaztelaniaren eta euskararen ezaugarriek aldatua. Hasierako kontsonantearen gordetzea euskararen eraginari zor omen zaio, bestela frikaria izango zen (cf. Lat. *caelu* > gazt. *cielo*). Baina erdiko silabakoa erromantzea da: *lj* > *ll* > *x* > *j*, eta azkenik sudurkaria gordetzea ala galtzea hizkuntzaren arabera izan da.

Lekukotasunen artean euskal aldaera agertzen ez bada ere, badakigu *Kexa(a)* dela, herrian antolatzen zen azokak garrantzizko bihurtu zuen eta bizkaitar baserritarren artean izenaren euskarazko forma gorde izan da.

Lanteno (gazt. Llanten)

1040 *Llanten* (BarII 316), 1114 *Llanten* (Baroja 1980: 206), 1328 *Llanten* (LG 639), 1471-76 *Llanten* (BF 284), 1490 *Llanten* (LO 165), 1527 *Llanten* (LO 505), 1533 *Llanten* (AA2 506), 1569 *Llanten* (LO 170), 1598 *Llanten* (LO 525), 1798 *Llanten* (LD 109), 1891 *Llanten* (BB2 172), 1931 *Llanten* (EE 7).

Aiarako herrixka honen izenean ikusi izan da landare bat, alde heze-etako belar baten izena. Honetan ikertzaile guztiek aho batez onartu dute: *llantén* gaztelaniako hitza. Honen jatorria latinean dago: lat. *plantago*, *-inis* > gazt. *llantén* (*Plantago maior*), belar mota bat. *Llanten* ‘*llanten* belarraren lekua’ (Vallejo 10).

Larrinbe

1470 *Larrimbe* (LG 637), 1471-76 *Larrinbe* (BF 266), 1483 (*Larrimbe*) (RU 149), 1487 (*Larrimbe*) (LO 155), 1509 *Larrinbe* (AA1 218), 1533 *Larrynbe* (AA2 506), 1798 *Larrimbe* (LD 109), 1892 *Larrimbe* (MD 2).

Amurrioko udalerrian sartuta dago. Euskal etimologia gardenekoa da, lekuaren nolakotasunari erreferentzia egiten dio: *larrin*+ *be(h)e*; lehena da *larrain*-en mendebaleko forma, *larrin* oso zabaldua dago Aiarako lurretan, adibidez, Okondokoak dira: *Larrinaga*, *Larrinagabekoa*, *Larrinagagoiko*, *Larrinburu*, *Larrinondo* eta *Larrinzar* (BarII 286). Bigarren zatia *be(h)e* da, leku posposizioa, *azpi*-ren sinonimoa eta izen bati lotzean monosilabiko bihurtzen da (cf. *Etxabe*, *Larrabe*...). Barrenengoaren gaztelaniako itzulpena egokia da: “*bajo la dehesa*” (BarIII 223).

Laudio (gazt. Llodio)

Eskualde honetako biztanle gehien duen herri honek hiru aldaera erakutsi ditu historian zehar. Batetik, euskarako *Laudio* (18) eta bestetik gaztelaniazko *Llodio*. Badago hirugarren aldaera bat, *Lodio*, Erdi Aroan dokumentatua.

Laudio-ren agerpenak:

1095 *Flaudio*, 1095 *Laudio* (LG 639), 1467 *Laudio* (Vallejo 8), 1503 (*Lavdio*) (AA1 15), 1758, 1769 *Laudio* (BarII 76), 1798 *Laudio* (BarII 34), c.1802 “*Lodio* por *Laudio*” (Mogel-en *Peru Abarca*, 27), 1828 *Laudiyo*- (urte berean argitaratutako euskarazko dotrinan).

Llodio-renak:

1124 (*Lhodio*) (LG 639), 1420 *Llodio* (OrdI 13), 1471-76 *Llodio* (BF 139), 1477 *Llodio* (OrdI 116), 1483 *Llodio* (RU 150), 1510 *Llodio* (LO 490), 1517 *Llodio* (AA1 453), 1533 *Llodyo* (AA2 506), 1537 *Llodio* (AA3 239), 1704 *Llodio* (FB 1700), 1731 *Llodio* (LO 278), 1892 *Llodio* (MD 4), 1931 *Llodio* (EE 23).

Lodio-renak:

1342 *Lodio*, 1471 *Lodio*, 1485 *Lodio*, 1507 *Lodio*, 1546 *Lodio* (Vallejo 8).

Etimologiari dagokionez, argi dago hirurok jatorri bera dutela, euren arteko antzekotasuna nabaria baita. Oinarrian uste izan da pertsona izen bat dagoela, *Claudius*, eta hizkuntzaren arabera bilakaera fonetikoa jasan duena. Horrela, erdaraz *cl*- taldea *ll*- bihurtu zen eta *-au*- diptongoa soildu egin zen. Euskaraz, *cl*- kontsonante taldea sinpletu zen eta diptongoa gorde. Eta hirugarren aldaerari dagokionez,

(18) Herri honen euskarari buruz jakiteko ikus Natxo Urkijoren *Zenbait apunte Laudioko euskaraz* liburua.

aurreko forma bien arteko gurutzaketatzat har daiteke (Vallejo 15). Bestalde, hasierako lekukotasunak hiperzuzenketa dirudi, garai hartako izkribatzaileek hasierako fonema (*ll-*) berrinterpretatu eta inoiz ez izandako forma bat asmatu zuten.

Antroponimoaren gainean, badago beste proposamen bat, Italiako *Laudius* izenaren alde (Muguruza 23). Bere lanean izena eta aldaketa fonetiko desberdinak azaltzen ditu (19), baina ematen du *Claudio* dela aukera gehien dituen, izen arrunt ezaguna delako, oso hedatua.

Leku izenaren bukaerari buruz, bi iritzi daude, atzizkiarekin (**Claudianus*) eta atzizkirik gabe (*Claudius*). Lehena Mitxelenak aipatua (1973: 133) eta bigarrenaren alde Irigoien (1997: 384) eta Vallejo daude (1996: 17), azken honen arabera **Claudianus*-etik **Llodiano* (20) genuke, inongo lekukotasunik gabea.

Euskarazko aldaera gutxitan agertzen da, agirietako hizkuntzaren arabera idazten ziren leku izenak, eta erdal kidea bazegoenez, hori zen erabilia.

Lekamaña

1257 *Leçamaya* (LG 638), 1487 (*Lecamaña*) (LO 155), 1490 (*Lecamanno*) (OrdII 625), 1533 *Lecamaña* (AA2 506), 1747 *Lacámaña* (LG 638), 1798 *Lecamaña* (LD 109), 1892 *Lecámaña* (MD 2).

Amurrioko Arrastariako eskualdean dago, *Artomaña*-tik kilometro gutxira. Bi izenak oso antzekoak dira, eta ematen du jatorri berekoak direla. Caro Barojaren aipamena: “la típica terminación latina *-ania, -enia* como son [...] *Artomaña, Lecamaña* en Álava”(Caro Baroja 1945: 95).

Jatorri latina edo indoeuroparra, Laudion *Lekanda* baserria dago eta beharbada aztergai den izen honekin harremana du. Ikerketa sakonagoa beharko litzateke, toponimo hauen sustraian aurreratzeko.

Lexartzu (gazt. Lejarzo)

864 *Lixarzo*, 1149 *Le-Sarzo* (LG 638), 1484 (*Lexarço*) (OrdI 165), 1490 (*Lejarzo*) (LO 164), 1533 *Lexarçu* (AA2 506), 1738 *Lejarzu*, 1757 *Lexarzu* (BarII 351), 1798 *Lesarzo* (LD 109), 1892 *Lejarzo* (MD 2).

Aiarako Añes ondoko herrixka da eta eskualde honen beste euskal toponimo askorekin bezala, zuhaitz baten izena dugu oinarrian, *liza* -

(19) Bilakaera honetan aurrekoarekiko aldaketa nagusia da hasierako lekuan dagoen albo-koaren palatalizazioa, inguruko erromantzearen gertaera tipikoa: *l-> ll-* (Muguruza 24).

(20) Arazo honetaz *Amurrio* sarreran informazio gehiago.

rra (*Fraxinus excelsior*), gaztelaniaz ‘fresno’. Izen honetan euskarazko mendebaleko aldaera dago: *lexar*; honi *-zu* gehitu zaio, ugaritasunezko atzizkia. Gero, gaztelaniaren eraginez azken bokala aldatuko zen (cf. *Luku* > *Luco*). Horretaz gain, frikaria aldatu zuen; txetxekari izatetik belare ahoskatzera igaro zen, *Luxo* > *Lujo* izenean bezala. Hala ere, berandu arte irauin zuen euskarazko aldaerak: 1591 eta 1757 urteetan *Lexarzu* (BarII 351), beharbada euskarak ere zirauelako.

Nafarroan zentzu bereko leku izena dago: *Lizaso* (< **lizarzu*), bila-kaera desberdina izan arren, funtsean forma bera dela ematen du, eta gaztelaniaren azken bokaleko eragin hori ere badu.

Lezama

1469 *Leçama* (OrdI 91), 1471-76 (*Leçama*) (BF 76), 1487 (*Lezama*) (LO 156), 1517 (*Leçama*) (AA1 460), 1533 *Leçama* (AA2 506), 1539 *Leçama* (AA3 282), 1598 *Lezama* (LO 525), 1606 *Lezama* (LO 171), 1798 *Lezama* (LD 109), 1892 *Lezama* (MD 2).

Amurrioko toponimo honetan jatorri indoeuroparra bilatu izan da, Mitxelena: “-ama... recuerda un sufijo indoeuropeo bien conocido (-ama,-isama). *Lezama*, si su z denota una africada podría ser el equivalente de *Letisama*, *Ledesma*” (Michelena 1973:44), ados dago Irigoien (1997: 315). Azken toponimo honek hizkuntza zeltetako dirudi, latinaurrekoa. Hitz zaharretik aldaketa nabaria izan da: **pletisama* > *Bletisama*, *Letisama* > *Ledesma*. Atzizkia superlatibokoa da, eta ‘(leku) laua, zabala’ litzateke toponimo osoaren esanahia (Martín Sevilla 64). Bitxia da euskaraz sinkopatua izan zen bokala azentuduna izatea, beharbada euskarara egokitzean azentua lekuz aldatu zen.

Euskal herrian badago *-ama*-ren lekukotasun gehiago: *Arakama*, (*Uxama* >) *Ultzama*, *Zegama*... eta Bizkaian *Lezama* (21) ere badago.

Llantenno v. Lantenno

Llodio v. Ludio

Luiaondo (gzt. Luyando)

Luyando-ren lekukotasunak: 1373 *Luyando* (LO 150), 1454 *Luyando* (OrdI 36,39), 1507 *Luyando* (AA1 168), 1510 (*Luiando*) (LO 499), 1517 (*Luyando*) (AA1 453), 1533 *Luyando* (AA2 506),

(21) Irigoien lan batean bildu ziren Bizkaiko herrien izenak euskaldunek ahoskatuak, eta inkestatu guztiek *Lezama* eman zuten, afrikatu gabe, 216 orr. (Irigoyen: “Formas de nombres de localidades vizcainas”, *FLV* 11,207-218).

1688 *Luyando* (LO 171), 1798 *Luyando* (LD 109), 1841 *Luyando* (LO 174), 1892 *Luyando* (MD 2).

Luiaondo-renak: 1471-76 (*Luyaondo*) (BF 247), 1603 *Luiaondo*, 1634 *Lujaondo* (BarII 135), 1704 (*Luyaondo*), 1745 (*Luiaondo*) (FB 1723),

Aiarako herri honen etimologiak badu esateko nahiko. Batetik, -*ondo* posposizioa dugu bukaeran (cf. *Okondo*), eta aurreko zatian ikusi izan da *lo(h)i* hitza edo bere eratorriren bat (**lo(h)i+-aga*). Hasierako itxura litzateke: **lo(h)i+a(g)a+ondo* (Muguruza 25).

Bestalde, orain dela gutxi arte agertzen zen euskarazko formatzat *Luxaondo*, testuen interpretazio txar batetik sortua; izan ere, jadanik XV. mendean *Luyaondo* dago Lope García de Salazar-en lan nagusian.

Egungo bi aldaerek luzaro iraun dute, *Luiaondo* 1841. urtean ere dokumentatzen da (BarII 135) eta *Luyando* 1373. erako jadanik baze-
goen.

Luxo (gazt. Lujo)

864 *Fluizo* (LG 639), 1490 (*Luxo*) (OrdII 613,615), 1798 *Luxo* (LD 109), 1877 *Lujo* (BB 318), 1892 *Lujo* (MD 2).

Aiarako herrixka honen izenak itxura gutxi izan arren, euskararen barruan etimologia izan lezake: **lo(h)i+-zu> *Loxu> *Luxu> Luxo>Lujo* (gaztelaniaz), eta *Luiaondo*-n bezala, lehen elementutzat *lo(h)i* genuke. Sekuentzia luzea da izen honek jasan duena, euskararen eta gaztelaniaren bilakaeren multzoa.

Toponimo honen antzekoak ugariak dira, Nafarroan *Loizu* eta *Lodosa*, hau erdarazkoa (gazt. *lodo*). Horrela ere azaltzen da Laudioko *Luja* toponimoa (Muguruza 25): **lo(h)i+za> *luiza> *luxa> Luja* (gaztelaniazko forma).

Madaria

Aiarako herrigune honek bi izen izan ditu, lehena *Obaldia*, hurrena eta egungoa *Madaria*. Ez da Aiarako lurretan ezagutu den herri izen aldaketa bakarra (cf. *Opellora* eta *Saratxo*).

Obaldia izenaren lekukotasunak:

964 *Dobaltia*, 1095 *Ovaldia*, 1114 *Obaldia* (IH 302), 1533 *Hobaldya* (AA2 506), 1542 (*Hobaldi*) (AA3 396), 1688 (*Obaldia*) (LO 171), 1704 (*Obaldia*) (FB 1982).

Madaria-ren lekukotasunak:

1199 *Madaria* (LG 639), 1508 (*Madaria*) (OrdI 344), 1688 *Madaria* (LO 171), 1704 *Madaria* (FB 1750), 1798 *Madaria* (LD 109), 1877 *Madaria* (BB 319), 1892 *Madaria* (MD 2).

Izen zaharrak ez du etimologia ziurrik, I. Horch-en arabera bi izan daitezke aukerakoak (IH 302). Lehenean euskal etimologia genuke, **Ubalde < ur+alde* egiturarekin. Arazo batzuk baditu Obaldiak eus-

karazko *u(h)alde*-tik eratortzeko, lekukotasun zaharrenetan ere balizko euskarazko formatik oso urrundua zegoelako. Dena den, Artziniegako biztanle batek *Hubalde* deitura zeukan 1573. urterako (Iturrate 416). Bigarren aukeran, *Ubaldu*s pertsona izenarekin osaturiko toponimoa genuke.

Egungo izena, *Madaria*, euskararen bidez azaltzen da, Barrenengoak idatzi bezala, *madari* “peral (silvestre)” + *a* artikulua (Bar 3,245).

Maroño

1454 (*Maronno*) (OrdI 36), 1471 (*Marono*) (OrdI 109), 1533 *Maroño* (AA2 506), 1736 *Maroño* (LO 172), 1798 *Maroño* (LD 109), 1877 *Maroño* (BB 319), 1892 *Maroño* (MD 2).

Aiarakoa den herrixka honen etimologia, Albertos Firmat-en arabera (22) *Maro* pertsonaren eratorri bat litzateke, *Maronius* > *Maroño*. Izen hau, beraz, jatorri antroponimikoa dutenen artean sartzekoa litzateke.

Menagarai

1114 (*Menagari*) (LG 641), 1533 *Menagarai* (AA2 506), 1636 *Menagaray* (Itur 225), 1688 *Menagaray* (LO 171), 1710 *Menagaray* (Itur 384), 1798 *Menagaray* (LD 109), 1841 *Menagaray* (LO 175), 1877 *Menagaray* (BB 319), 1892 *Menagaray* (MD 2).

Bi elementuz osaturiko izena. Bigarrena adjektibo bat da eta lehenengoaren kasuan bi aukera daude. Gerta liteke Burgosko probintziako *Mena* haranari erreferentzia egitea (Aiarako eskualdearen mugakidea da berau), eta beste aukera da, egiantzekotasun gehiagokoa, pentatzeara *mea* euskal hitzaren aldaera dela, Mitxelena (1973:127):” *mea* “*mineral*”, “*vena de mineral*”[...] tenemos tambien *mena-* en *Menagarai*”. Horrela balitz, *mea* bat(zu)en kokapena salatuko liguke toponimo honek; izan ere, herrian bertan *Meaza* izeneko soroa dago, eta Aiarako lurretan meatzeak ez dira ezezagunak; esaterako, Baranbion *Meaza* errepikatzen da eta erdarazko toponimoak ugariak dira: *Mina Adrián*, *Mina Amador*, *Mina Barambio*, *Mina de la Esperanza* eta abar (BarII 35).

Mendieta

1257 *Mendieta* (LG 641), 1471 (*Mendieta*) (OrdI 109), 1471-76 *Mendieta* (BF 274), 1487 (*Mendieta*) (LO 155), 1510 (*Mendieta*) (LO

499), 1533 *Mendieta* (AA2 506), 1688 (*Mendieta*) (LO 171), 1740 *Mendieta* (Itur 290), 1892 *Mendieta* (MD 2), 1931 *Mendieta* (EE 5).

Artziniegan dagoen herrigune honek duen etimologia erraza da, euskara dakienarentzat, batetik, *mendi* izen arrunta eta, bestetik, *-eta* atzizki oparoa (23). Bi elementuen jatorria eztabaidatua bada ere, dirudienez atzizkiaren kasuan latinaren mailegua genuke. *Mendieta* izenaren esanahi egiantzekoena: mendiak, mendi multzoa. Euskal Herriko toponimian askotan errepikatzen da toponimo hau, aski eza-guna baita.

Menoio

1114 (*Menoyo*) (LG 642), 1484 (*Menoyo*) (OrdI 165), 1490 (*Menoyo*) (LO 164), 1510 (*Menoyo*) (LO 499), 1533 *Menoyo* (AA2 506), 1688 *Menoyo* (LO 171), 1745 (*Menoio*) (FB 1881), 1798 *Menoyo* (LD 109), 1892 *Menoyo* (MD 2).

Aiarako udalerrikoa da. Haren etimologia iluna da, ikertzaile gehie-nek ikusi dute aukeren artean *Mena-* izenarekiko harremana; beste aldetik, Horch-ek (24) beste bi harreman posible azaldu ditu: batetik, bilduma honen beste izen askotan bezala, pertsona izen bat genuke (zein den ez du zehazten), eta azkenekoz, aipatzen du Artziniegako *Las Menoyas* (mikro)toponimoa, antzekotasunagatik badirudi kidea-tsunen bat dagoela, beharbada garai batean **menoio* izen arrunta beza-la erabili izan da.

Murga

1095 *Murga* (LG 643), 1471-76 *Murga* (BF 137), 1484 (*Murga*) (OrdI 164), 1514 (*Murga*) (AA1 376), 1527 (*Murga*) (LO 501), 1533 *Murga* (AA2 506), 1704 (*Murga*) (FB 1953), 1736 *Murga* (LO 172), 1798 *Murga* (LD 109), 1892 *Murga* (MD 2).

Lekukotasun guztietan itxura bera duen Aiarako herrigune honek ez du azalpen errazik. Izen bera agertzen da Enkartazioetan hiru aldiz, Galdamesen, Zallan eta Sopuertan (Sasia 162). Gainera, Gernikako herrixka batek *Morga* izena du. Antzekoa da Arabako *Murgia* herria, eta honen kidea izan daiteke erromatar aroko *Murgi* hiria, iberiar penintsulako Levante aldean. Etimologiari buruz, gaztelaniazko *murga* hitz arrunta homonimoa baino ez da, eta aztergai den toponi-moaren antzekotasuna kasualitate hutsa. Beharbada oinarrian *mur* dago, atzizki zehaztugabe batekin (cf. Nafarroako *Arga*, *Lerga*, *Uterga*...).

(23) Atzizki honen jatorriaz eta esanahiaz, ikus Salaberri 63-65 orr.

(24) I. Horch 291.

Okondo (gazt. Oquendo)

1257 *Oquendo* (RU 118), 1420 *Oquendo* (OrdI 13), 1471-76 *Oquendo* (BF 37), 1514 *Oquendo* (OrdII 380,381), 1527 *Oquendo* (LO 505), 1598 *Oquendo* (LO 525), 1606 *Oquendo* (LO 171), 1704 (*Oquendo*) (FB 2062), 1798 *Oquendo* (LD 109), 1892 *Oquendo* (MD 2).

Luiaondo-ri bezala, *-ondo* posposizioa bana dakiok baina lehenengo segmentua ilun geratzen da. Agian *oka*- toponimo-sortzaile ezaguna dago (*Montes de Oca, Ocaña...*). Barrenengoaren arabera, *oka* 'ibai' da baina ez du iturririk aipatzen eta hiztegi nagusietan ez da agertzen (BarII 298).

Euskarazko formaren lekukotasunak (25) hartu dira J. P. Ulibarriren idazkietatik, bera Okondokoa zen eta bi aldaeratan idatzi zuen: *Okondo* eta *Ukondo*. Azken hori jatorrizkoa balitz pentsa liteke *uk(a)ondo* euskal hitzetik sortua genukeela. Hala ere, *oka* elementua maiz dager inguruko toponimian, eta etimologia egiterakoan **oka+ondo* izango zen aurreko forma. Irigoientzat *oka*-ren jatorria hizkuntza zeltikoetan bilatu behar dugu (26), eta pentsatu liteke garai batean euskaraz ere erabili zela.

Olabezahar

1093 *Olahuzezahar*, 1095 *Olave-zahar* (LG 645), 1533 *Holabéçar* (AA2 506), 1598 *Olávezar* (LO 528), 1798 *Olavezar* (LD 109), 1841 *Olavezar* (LO 174), 1877 *Olavezar* (BB 319), 1892 *Olávezar* (MD 2).

Aiara udalerriko herrigunea, *Izoria* ibaitik hurbil. Izena euskararen bidez ulertzen da: *ola+ be(h)e+ za(h)ar*. Eskualdean *ola* agertzen da toponimo askotan. Laudion, adibidez, *Olarte*, *Oleta* eta *Olariaga* daude. Hitz honek gaur egun 'burdinola'esanahia du baina lehenago 'etxola' esan nahiko zuen, horixe da egun Euskal Herriko sortaldean duen adiera, aspaldian lurralde osoa hartu omen zuena (Michelena 1973: 137).

Opellora (gazt. Costera)

1515 *Opellora* (IH 14), 1626 *Opellora* (Itur 374), 1725 *Costera* (IH 223), 1798 *Costeramendieta* (27) (LD 109), 1877 *Costera* (BB 318), 1892 *Costera* (MD 2).

(25) Ez hain aspaldian, Arrankudiagako Zolloko euskararen herri honi *Okondo* deitzen zioten (Sasia 91).

(26) Jatorria, bilakaera eta inguruko toponimiaren agerpenak ikusteko: Irigoyen 1985:107. orr.

(27) Antza denez Aiarako bi toponimo batean bilduta daude, *Costera* eta *Mendieta*, ulermen edo transkribapen arazoa gertatu delarik.

Aiarako udalerrikoa den herrigune honi izena aldatu zioten XVIII. mendean. *Opellora* zen herriaren izen arrunta mende horren erdialde-
ra arte, ondoren *La Costera* izenera aldatu eta hamarkada batzuetan
artikulua galdu zuen egungo itxura finkatuta geratu zela (BarII 326).

Costera izena gaztelaniazkoa da, latineko *costa*-tik (gazt. *cuesta*)
eratorria eta esanahiari dagokionez, *aldapa*, *aldats* lirateke euskal
kideak. Euskal Herriaren beste aldean, Nafarroako Eslaban ere aur-
kitzen da: *La Costera* (Salaberri 222) eta *Las Costeras* (Salaberri
321,388).

Izen zaharrak egun San Migelen basilizaren alderdia adierazten du;
etimologia onargarriena: *(*villa*) *superiora* > **upeliora* > *Opellora* (I.
Horch 223).

Oquendo v. Okondo

Ozeka

1533 *Hoçeca* (AA2 506), 1688 *Oceca* (LO 171), 1798 *Oceca* (LD
109), 1841 *Oceca* (LO 175), 1877 *Oceca* (BB 319), 1892 *Óceca* (MD
2).

Aiarako herrixka honentzat harremana bilatu da *Oka*- serieko topo-
nimoekin (Albertos Firmat 194), gainera badirudi *-eka* sailekoa dela,
agian pertsona izen bati lotua. Oraindik ez da zehaztasun osoz izena-
ren jatorria eta bilakabidea azaldu.

Quejana v. Kexaa

Respaldiza v. Arespalditza

Retes de Llanteno v. Erreta-Lanten u

Retes de tudela v. Erreta-Tuter a

Salbantone (gazt. Salmantón)

864 *Salbantone*, 866 *Salmanton*, 1114 *Salbantone* (LG 650), 1533
Salmantón (AA2 506), 1745 (*Salmanton*) (FB 2269), 1798 *Salmanton*
(LD 109), 1877 *Salmanton* (BB 320), 1892 *Salmantón* (MD 2).

Aiarako herri honen bi etimologia dira kontuan hartu beharrekoak,
Albertos Firmat-ena eta I. Horch-ena. Albertosen arabera izen honen
oinarria *sala-* da, Europako ibai izen askotan dagoena, berdin bigarren
elementua *-mantia*; horrela, izena *Salmantia*-ren aldaera den
Salmanto-ren gainean eratuta litzateke (1970: 198). Bestela uste du I.
Horch-ek: pertsona izen bat **Salva(n)tus eta -one* atzizkia (I. Horch
343). J. C. Barojak sail batean sartu zuen *Salbantone*, zeinean izenek
-o bukaera zeukaten nominatiboan eta akusatiboan *-onem*, taldekide-

en artean *Armiñón*, *Barrón*, *Buradon* eta beste zenbait bazeuden (Baroja 1980: 254-255).

Edonola ere, etimologiek jatorri indoeuroparra bilatzen dute, nahiz eta bien artean *Salbantone*-ren azalpenean oso desberdinak izan. Beste aukera bat litzateke jatorrian hagianimo bat zela pentsatzea, ondoren aldaketa fonetikoa jasan zuela.

Santa Koloma

1471-76 *Santa Colomba* (BF 136), 1487 (*Santa Coloma*) (LO 155), 1515 (*Santa Coloma*) (AA1 401), 1533 (*Santa Coloma*) (AA2 505), 1620 *Santa Coloma* (Itur 227), 1877 *Santa Coloma* (BB 317), 1892 *Santa Coloma* (MD 2), 1931 *Santa Coloma* (EE 5).

Artziniegako udalerrikoa. Hagianimo bat da, hots, santu baten izena toponimo bihurturik. Gure lurraldean oso arrunta da, baina zerrenda toponimiko honetan bakarra dago. Santu edo santa baten omenez egindako eliza, baseliza edo bestelako eraikin erlijiosoa, gero lekuari izena emango zion.

Oraingoan *Santa Koloma* dugu, latinez *Sancta Columba*. Izen horrek 'uso' hegazia adierazi nahi du. Gaztelaniazko hitza, *paloma*, latin arrunteko *palumba*-tik dator.

Hagianimo honekin herri izen ugari daude, ezagunena da Kataluniako Santa Coloma de Gramanet. Hango lau probintzietan beste hiru herrik badute *Santa Coloma* izena.

Saratxo

Amurrioko herrigune honek, lurralde honetako beste batzuek bezala, izen bat baino gehiago izan ditu mendeetan zehar: *Derendano* eta *Saratxo*.

Derendano-ren lekukotasunak:

1095 *Derendano* (BarII 80), 1465 (*Derendano*) (RU 132), 1471 (*Derendano*) (OrdI 97), 1477 (*Derendanno*) (OrdI 115), 1510 (*Derendano*) (LO 499), 1516 (*Derendano*), (*Derendaño*) (RU 155), 1533 *Derendano* (AA2 506), 1570 *Derendano* (Madinabeitia 231).

Saratxo-ren agerpenak:

1138 (*Sarachio*), 1138 (*Sarrachio*) (LG 652), 1373 (*Saracho*) (LO 150), 1487 (*Saracho*) (LO 155), 1490 (*Saracho*) (LG 652), 1504 (*Saracho*) (AA1 63), 1505 *Saracho* (AA1 88), 1798 *Saracho* (LD 109), 1892 *Saracho* (MD 2).

Izen zaharra, *Derendano*, 1095. urtean agertu zen lehenengo aldiz eta XVII. mendean oraindik erabiltzen zen (BarII 85). Bere etimologiaren gainean pertsona izen eratorri bat aurkitzen dute, **Terentiano* (BarIII 159 eta, zalantzekin, J. C: Baroja 1980: 230). Horrela bada, *Terentio* antroponimoa eta *-ano* lirake honen jatorria. Proposatutako izenetik ezaguna denera aldaketa zenbait izan dira, bi herskari ahos-

kabeak ahostundu egin ziren, euskararen eraginez. Bukaerako zatian ez da *-iano* > *-io* bilakaerarik eman, bilduma honetako hainbat herri izenekin gertatu omen zena. Agian goranzko diptongoa soildu zen (cf. *Goti* > *Gotañe* (Irigoién 1997: 335)) frikazioa gertatu baino lehenago (28), sudurkaria gordetzea zail da azaltzen, agian aipatutako bilakaera hori ez da alde honetan eman, baina hau ere zalantza gaia da.

Mende batzuetatik egungo izena *Saratxo* da, etimologia *sahats* zuhaitz izenaren aldaera batekin eratua: *saratx-tsu* edo *saratx-zu* formatan hain zuzen, atzikia *-tsu* edo *-zu* ugaritasunezkoak dira (Michelena 1973: 155). Azken bokalaren aldaketa gaztelaniak eragindakoa omen da, *Luxo* izenean bezala.

Sojo v. Zollo

Sojoguti v. Zolloguti

Tertanga

1075 *Ertanga*, 1257 *Tertanga* (LG 653), 1471 *Tertanga* (OrdI 97), 1485 *Tertanga* (OrdI 176,181), 1745 *Tertanga* (FB 2376), 1798 *Tartanga* (LD 110), 1813 *Tertanga* (Itur 256), 1877 *Tertanga* (BB 318).

Amurrioko udalerrian dago, Arrastaria deritzan lurraldean. Jatorri latina du, itxura guztien arabera, Albertos Firmat-en azalpena: "como *Cuartango* [Tertangatik hurbil dagoen herria], también este topónimo tiene origen numeral. *Tertiani* eran los soldados de la legión III. Por ello se basaría este nombre en *Tertianica*, como *Cuartango* en *Quartanicus*". Hizkuntzaren bilakaeraren prozesua: *Tertianica* > **Tert(i)anka* > *Tertanga*. Diptongoa desegin ondorengo aldaketak (bokal sinkopa eta sudurkariaren osteko herskariaren ahostuntzea), *Kuartango* leku izenaren bezalakoak dira.

Zollo (gazt. Sojo)

864 *Desolio*, 1149 *Solio* (LG 653), 1471 (*Sojo*) (OrdI 109), 1471-76 *Sojo* (BF 379), 1487 (*Sojo*) (LO 156), 1504 (*Sojo*) (AA1 47), 1527 (*Sojo*) (LO 501), 1533 *Sojo* (AA2 506), 1688 *Sojo* (LO 171), 1798 *Sojo* (LD 109), 1892 *Sojo* (MD 2), 1931 *Sojo* (EE 5).

Aiarako herrixka honetan oso dokumentazio zaharra dago, jasan duen bilakaera argitzeko garrantzizkoa. Horixe genuke Muguruzaren

(28) Mitxelena-ren FHV liburuan, diptongo horren emaitzaz ari delarik aipatzen ditu Nafarroako herri baten aldaerak *Gerendiain*, *Derendiain* eta *Drendain* zirela eta, zalantzaz, *Terentiani*-tik eratortzen ditu, oinarrian *Terentio* dagoela (Michelena 1976: 287).

iritziz (29) : lat. *desolium* > *desolio* > *solio* > *sollo* > *sojo*. Nafarroan, adibidez *Desojo* dago, lehen *Desollo* zena (Belasko 163). I. Horch-en arabera, *Solius* antroponimoa litzateke toponimo honen jatorria, ez izen deskriptibo bat (IH 361). Edonola ere, hitzaren bilakaera fonetiko-a berdina izango zen. Euskarazko forma zertxobait aldentzen da, **sollo* > *zollo*, txistukari apikaria bizkarkari bihurturik, gaztelaniaren bilakaera buruturik ez zegoelarik; horren bi adibide dira Laudioko *Zolloa* baserria eta Arrankudiagako *Zollo* auzunea.

Zolloguti (gazt. Sojoguti)

1573 *Sojoguti* (Itur 418), 1621 *Sojogute* (Itur 213), 1642 *Sojogute* (Itur 419), 1750 *Sojoguti* (LO 273), 1798 *Sojoguti* (LD 109), 1822 *Soxo Guti* (Itur 425), 1877 *Sojoguti* (BB 317), 1892 *Sojoguti* (MD 2), 1931 *Sojoguti* (EE 5).

Herrixka hau Artziniegan dago, Zollotik hurbil samar. XVII. eta XVIII. mendeetan honen izena *Soxogute* bazen ere, XVII. bukaeran *Soxoguti/Sojoguti* agertzen hasi eta hurrengo mendearen erdialdean azken forma hori finkatu zen (BarII 383). Etimologiaren arabera *Sojoguti* gence jatorritik hurbilago. *Guti* da egungo *gutxi*-ren aldea zaharra, esanahia apurtxo bat aldatuta. Irigoienek (1987:255) eta bestek adierazi bezala, Erdi Aroko toponimian *guti*-ren balioa ‘txiki’ zen.

Soxogute azaltzeko, gaztelaniak eragindako aldaketa dela dirudi. Adibidez, Araban *Ollábarre* dago, *Olabarri*-ren erdal aldaera. Bizkaian *Santurtzi/Santurce* daude eta Gipuzkoan *Oñati/Oñate*.

Zuhatza

1229 (*Zuaza*) (LG 659), 1471-76 *Çuaça* (BF 240), 1533 *Çuaça* (AA2 506), 1598 *Zuaza* (LO 527), 1748 *Zuaza* (LO 780), 1779 *Zuaza* (Itur 212), 1798 *Zuaza* (LD 109), 1814 *Zuaza* (LO 566), 1877 *Zuaza* (BB 320), 1892 *Zuaza* (MD 92).

Aiarako udalerrikoa den herri honetan euskarazko etimologia argia bada ere, bi esanahi izan ditzake. Alde batetik, oinarria dugu, *zuhaitz*; baina zailtasuna dago bukaera aldeko elementuarekin, artikulua (-a) da ala atzizki kolektiboa (-tza) aukeratzeko. Hemen biak izan daitezke, *zuhaitz* bati erreferentzia egitea edo *zuhaitz* multzoari. Bigarrenak agian aukera gehiago ditu. Beste aldetik, diptongoaren soilketa inguru honetan arrunta da: *Zuazo*, *Zugazti*...

ONDORIOAK

Lan honetan toponimo ugari aztertu dira, batzuk etimologia argikoak, beste hainbeste ez. Hemen jatorri iluntzat aurkeztu direnentzat etimologia egokia izan dezakete, aurkitzea falta delarik. Gainera, ez da ahaztu behar ziurtasun mailak daudela, eta zenbait leku izenekin inolako arazorik ez dagoen bitartean, beste askorekin ziurtasuna ez dela erabatekoa, jatorria eta bilakaera guztiz zehaztea beharrezkoa baita. Hala ere, ondorio batzuk aurkeztu daitezke, toponimoen izaeraz eta jatorriaz. Hauek bi multzotan bana ditzakegu, esanahiaren arabera; batetik deskribatzaileak dira, leku izenaren nolakotasunari erreferentzia egiten diotenak. Gainerakoak antroponimikoak dira, pertsona izen batetik sortuak. Lehenengo multzoan sartzekoak dira, adibidez: *Aginaga*, *Beotegi*, *Campijo*, *Etxegoien*, *Luiaondo*, *Olabezahar*, *Saratxo* eta abar. Antroponimikoak dira, besteak beste: *Amurrio*, *Añes*, *Baranbio*, *Delika*, *Derendano*, *Kexaa*, *Laudio*, *Maroño*...

Deskribatzaileak direnetan, gehienek euskal etimologia dute, beste batzuk gaztelaniazkoa (*Campijo*, *Costera*, *Retes de Llanteno*, *Retes de Tudela*...). Jatorri euskalduneko asko zuhaitz izenak dira: *Aginaga*, *Arespalditza*, *Lexartzu*, *Madaria*, *Saratxo* eta *Zuhatza*. Bestelakoak ere badaude (*Beotegi*, *Izoria*, *Olabezahar*...).

Jatorri antroponimikoetan, ohikoak diren atzizkiak lagungarri dituzte: *-ano*: *Derendano*, eta, zalantzekin, *Amurrio*, *Baranbio* eta *Laudio*; *-ana*: *Kexaa*; *-ika*: *Delika*; *-iz*: *Gordeliz*; eta seguruenik sail honetakoak ere bada *-ega*: *Artziniega*.

Multzo bat geratu da, zein taldetan sartzeko arazoak daudela: *Aiara*, *Aloria*, *Artomaña*, *Lekamaña*, *Menoio*, *Murga*, *Obaldia* eta *Ozeka*. Hauetarako hurbilketa zenbait proposatu dira, batzuetan litekeen etimologia ere bai, baina alor honetan duda da nagusi.

Etimologia soilak eman ezezik, azterketa honen helburuetako bat zen Aiaran egon diren hizkuntzen berri jakiteko, agian hizkuntza zeltaren batek aztarren bat utzi zuen, baina ziurra da latinaren eta bere ondokoaren, gaztelaniaren lekukotasuna eta gaur egungo egoera. Are gehiago, euskarak behin ia lurralde osoa izan bazuen ere; gerora, berak utzitako izen batzuetan erdararen eragina nabaria da (cf. *Lejarzo*, *Lujo*). Horrek adierazten digu; batetik, erdararen egungo nagusitasuna, azken mendeetan areagotua. Bestetik, euskal aldaerak topatzeko zailtasunak egotzi behar diogu hizkuntzaren estatus sozialari, idazkietan hobesten zirenak erdal aldaerak zirelako.

Aiarako toponimia hobeki ezagutzeko mikrotoponimia oso interesgarria da, azken honetan hizkuntza aldaketa argiago islatzen delako, eta lurraldearen historiarako datu osagarri ugari aterako liratekeelako.

Gainera, inguruko eskualdeetako leku izenetan sakontzea oso lagungarria gerta liteke; adibidez, euskararen eremua jakiteko, Mena haraneko toponimia ikertzea (cf. Irigoien 1997: 419 eta hurrengoak).

Zaila da lurralde linguistiko garbiak marraztea, toponimiaren araberrakoak. Hizkuntzen mugimendua egon da, mendez mende. Historiaren datuekin, Erdi Aroko Aiaran euskaldunak eta erdaldunak zeuden, agian lehenak nagusi ziren baina arazo handia dago, agirieta-ko hizkuntza erdara da eta leku batek bi forma bazituen, erdarazkoa

aukeratzen zen ia beti, horrela azal daiteke euskal forma batzuen urritasuna, edo desitxuraketa.

Gehitzeko geratuko litzateke lanean toponimia osoa kontuan hartzea, denboraren joanaren eragina leku izenetan, hizkuntza aldaketa, bizimoduarena... bestetik, leku izen asko oso ilun daude oraindik, azalpen onik edo batere ez dutenak. Alde horretan egin beharreko etimologia da apriorismo gabekoa, alderdikieriarik gabea, datuetan oinarritua, horiek baitute azken hitza.

Bukatzeko, Aiara ez da leku isolatua, inguruetako eragina jaso du eta horregatik, ondoko lurraldeetan ezagutzan sakondu ahala, fenomeno bera gertatuko da Aiarako lurrean.

Lan hau bukatu ondoren, toponimia eta hizkuntzekin zerikusi handia duen liburu baten ezaguera izan da (Francisco Villar-en *Indoeuropeos y no indoeuropeos en la Hispania prerromana*, Salamanca, 2000). Antzinako eta egungo toponimia ikertuz, frogatu nahi du indoeuropar herriak egon zirela iberiar penintsulan erromatarrek eta zeltiberiarrek baino lehenago. Liburu mardula eta mamitsua da, aspaldiko hizkuntzen hedapenaz eta antzinatasunaz jarduteko eta xede horretarako azterketa toponimiko ugari egiten ditu. Hauetako batzuek, beharbada, zerikusia izan dezakete lan honetako zenbait izenekin. Irakurketa arin baten ondoren, hauexek dira liburuko indoeuropar toponimoekin zerikusia izan dezaketanak: *Aloria*, *Izoria*, *Maroño*, *Murga* eta *Salbantone* (30). Hauetako gehienentzat lehenago ere etimologia indoeuroparra eman izan da, latina normalean, eta agian garai zaharragoak dira baina horrek azterketa espezializatua behar du.

Bada izen batekiko lotura aski harrigarria, *Izoria*-rekin, hain zuzen. Liburuan dago bere cognatua izan litekeena, penintsulako hegoaldeko *Aesuri* leku izena, bere lehen elementua **eis*- ‘azkar, arin’ omen da, eta bigarrena urarentzako hitz bat (aip. lib. 43, 384). Horrelako azalbidea ongi letorkioke Aiarako toponimoari, herriaz gain hidronimoa ere bada, eta toponimian jakina da hidronimoek duten iraupen luzea. Ez dira ahaztu behar Gipuzkoako *Oria* ibaia, eta hemen aztertutako *Aloria*, etimologikideak agian. Baina euskarazko (*h*)*ori* hitzak balio dezake hidronimo baterako; zalantzarik gabe, korapilo hau askatzeko lan osagarriak beharrezkoak dira.

Badago beste toponimo bat, liburukoen artean sartzea merezi duena; *Murga*-rentzat ez da azalpen betegarririk eman baina Villar-en lanean *murc*-elementuarekin eraturiko saila bada: penintsulan *Lacimurga*, *Laconimurgi*, *Murgi*, eta mendebaleko Europan: *Morgantia*, *Morgi*, *Murg*, *Murga*, *Murgantia*, *Murgia*... (Villar 260,262). Homonimoak eta antzekotasun handia dutenak ugariak dira

P. S.

(30) Aipagarria da antzinako Hispaniako hegoaldean *Erbi* leku izena bazela. Homonimia hutsa dela pentsa liteke, Villar-ek izen ez indoeuropartzat hartzen badu ere.

harremana ukatzeko eta, esanahirik eman ez badu ere, Villar-ek sail hori indoeuropar hizkuntzetakoetan sartzen du, eta Aiarakoak ere aipatutako sailekoa dirudi.

BIBLIOGRAFIA

ALBERTOS FIRMAT, M. Lourdes: "Álava prerromana y romana. Estudio lingüístico", *Estudios de Arqueología Alavesa*, IV, 1970, 107-234.

BARRENENGOA ARBERAS, Federico: *Onomástica de la Tierra de Ayala*, I, II eta III, Gasteiz, 1989.

BÉCERRO DE BENGÓA, Ricardo: *El libro de Álava*, Gasteiz, 1983 [1877].

_____: *Descripciones de Álava*, Gasteiz, 1996.

BELASKO, Mikel: *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra*, Iruñea, 1999.

CARO BAROJA, Julio: *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca, 1945.

_____: (zuz.) *Historia general del País Vasco*, III. lib., Bilbo, 1980.

CARRETIÉ, Gabriel: *Los orígenes de Bilbao, las Encartaciones y Tierra de Ayala*, Bilbo, 1987.

ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, Isabel: *Corpus de toponimia carranzana*, Bilbo, 1999.

ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, Javier et al: *Colección documental del archivo municipal de Orduña (Tomo I) (1271-1510)*, Donostia, 1994.

ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, Javier et al: *Colección documental del archivo municipal de Orduña (1510-1520), de la Junta de Ruzabal y de la aldea de Belandia (Tomo II)*, Donostia, 1994.

ESCARZAGA, Eduardo: *La villa de Arceniega*, Bilbo, 1983 [1931].

GARCÍA DE SALAZAR, Lope: *Las bienandanzas y fortunas*, Ángel Rodríguez Herreroren edizioa, Bilbo, 1984 [1471-1476].

GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio: *Cuadernos de toponimia 8: Toponimia menor de Ayala*, Gasteiz, 1998.

HORCH, Ingrid: *Zur Toponymie des Valle de Mena/Castilla und des Valle de Ayala/Álava*, Frankfurt, 1992.

IRIGOIEN, Alfonso: *Opera selecta*, Bilbo, 1997.

IRIGOYEN, Alfonso: "Sobre los topónimos OCA y su entorno", *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, II, Gasteiz, 1985, 1007-1016.

_____: *La lengua vasca en relación con la antroponimia y otras cuestiones medievales*, Gasteiz, 1983.

_____: *De Re Philologica linguae Uasconiae II*, Bilbo, 1987.

_____: *De Re Philologica linguae Uasconiae IV*, Bilbo, 1992.

IRIGOYEN, Alfonso eta OLASOLO, Elisabeth: *Nombres de familia y oicónimos en las fogueraciones de Bizkaia de los siglos XVII y XVIII*, Bilbo, 1998.

ITURRATE, José: *El santuario de la Virgen de la Encina*, Gasteiz, 1998.

KNÖRR, Henrike: *Lo que hay que saber sobre la lengua vasca en Álava. Arabako euskarari buruz jakin behar dena*, Gasteiz, 1998.

LANDÁZURI Y ROMARATE, Joaquin Joseph: *Historia Civil de la M. N. Y M. L. Provincia de Alava*, Bilbo, 1973 [1798].

LIBANO ZUMALACÁRREGUI, Ángeles: *Toponimia medieval en el País Vasco I (Onomasticon Vasconiae 14)*, Bilbo, 1995.

LÓPEZ DE GUERENU, Gerardo: *Toponimia alavesa seguido de mortuorios o despoblados y pueblos alaveses (Onomasticon Vasconiae 5)*, Bilbo, 1989.

LUENGAS OTAOLA, Vicente Francisco: *La Tierra y provincia de Ayala*, Bilbo, 1992.

MADINABEITIA, José: *El libro de Amurrio*, Gasteiz, 1979 [1932].

MENDÍA, Santiago: *El condado de Ayala*, Gasteiz, 1994 [1892].

MICHELENA, Luis: *Apellidos vascos*, Donostia, 1973 [1953].

_____ : *Fonética histórica vasca*, Donostia, 1976.

_____ : *Palabras y textos*, Gasteiz, 1987.

MOGEL, Juan Antonio: *Peru Abarca*, Bilbo, 1981 [c.1802].

MUGURUZA MONTALBÁN, Félix: "Laudioko 200 izen", *BAI*, 17. zbk., Laudio, 1997.

Nomenclator foral de Álava 1999 Arabako foru izendegia, Gasteiz, 1999.

QUILIS, Mercedes: "La F- inicial latina en los orígenes de la lengua española II", *ASJU*, XXX-1, 1997, 67-148.

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi: *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez (Onomasticon Vasconiae 11)*, Bilbo, 1994.

SALAZAR ARECHALDE, Jose Ignacio: *La comunidad de aldeas de Orduña. La junta de Ruzabal (siglos XV-XIX)*, Bilbo, 1989.

SASIA, Jesús María: *Toponimia euskerika en las Encartaciones de Vizcaya*, Bilbo, 1966.

SEVILLA RODRÍGUEZ, Martín: *Toponimia de origen indoeuropeo prelatino en Asturias*, Oviedo, 1984.

URKIJO, Natxo: *Zenbait apunte Laudioko euskaraz*, Bilbo, 1994.

VALLEJO RUIZ, José María: "El poblamiento antiguo de Llodio-Laudio y el origen del topónimo", *BAI*, 16. zbk., Laudio, 1996.

ZZ EE.: *Arabako Biltzar Nagusien Aktak I(1502-1520)*, Gasteiz, 1994.

_____ : *Arabako Biltzar Nagusien Aktak II(1520-1533)*, Gasteiz, 1994.

_____ : *Arabako Biltzar Nagusien Aktak III(1534-1545)*, Gasteiz, 1994.

La cofradía de la Esclavitud en Santa María de Salvatierra. Su retablo, pinturas y otros ornamentos (1)

FERNANDO R. BARTOLOMÉ GARCÍA

La cofradía de la Esclavitud o “*de los esclavos de la Virgen Desterrada*” fue fundada el día diecinueve de agosto de 1643 por Fray Benito González, antiguo abad del convento de San Millán de la Cogolla. Antes del acta de fundación se habían realizado varias reuniones con los distintos poderes municipales de Salvatierra. El día cuatro de marzo Fray Benito mostraba la licencia del Generalísimo y de toda la congregación general de San Benito para la fundación de esta cofradía. Tres días después los beneficiados de las iglesias de la villa aceptaban la fundación de la cofradía en la parroquia de Santa María, tras ganar el sorteo a los partidarios de la de San Juan. Se eligió como patrona una imagen de la Virgen y se colocó en el lateral de la epístola junto al altar de Santa Ana. Las ordenanzas se aprobaban el uno de marzo de 1643, en ellas se establecía, entre otras cosas, llamarse “*Esclavos de la Virgen*” por el espantoso destierro que sufrió en Egipto durante siete años. La cofradía estaba abierta a personas de “*cualquier estado, calidad y condición*” y competía con las ya existentes de la Santa Vera Cruz y Nuestra Señora del Rosario (2).

La primera obra que documentamos en el libro de cuentas de la cofradía es el dorado y estofado de las andas de la Virgen, realizada con la limosna que dio el cofrade Fernando Martínez de Zumalburu. Se pagaron trescientos cincuenta reales al pintor Diego Pérez y Cisneros un prestigioso maestro vitoriano, bien conocido en Salvatierra ya que en 1638 había policromado el retablo mayor de la

(1) Este artículo ha sido realizado en el marco de la beca de investigación postdoctoral financiada por el Departamento de Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.

(2) GRANDES, F.: *Cosas de Salvatierra*, Vitoria, 1936, pp. 195-196. DE AZCARATE RISTORI, J.A.: “Salvatierra: Parroquias, capillas y ermitas”, en PORTILLA, M.: *Catálogo Monumental Diócesis de Vitoria*, tomo V, pp. 154-155, 159-160. Vitoria, 1982. A.D. de Vitoria. Salvatierra, libro de la cofradía de la Esclavitud, nº 81.